

127. FITXA GIPUZKOA – Gipuzkoako toki erakundeek eta haien menpeko erakundeek antolatutako ikuskizun eszenikoak eta musikalak aire zabaleko espazio publikoetan gauzatzeko dirulaguntzak (Kale Kultura)

Nori zuzendua: dirulaguntzaren xede diren jarduerak antolatzen dituzten Gipuzkoako toki erakundeak eta haien menpeko erakundeak

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [FA-KG-2025-0237 Foru Agindua, 2025eko apirilaren 15ekoa, 2025eko ekitaldiko deialdia onesten duena, Gipuzkoako toki erakundeek eta haien menpeko erakundeek antolatutako ikuskizun eszenikoak eta musikalak aire zabaleko espazio publikoetan gauzatzeko dirulaguntzak emateko \(Kale Kultura\)](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 150.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/06/02

Laburpena

Dirulaguntza hauen xedea da Gipuzkoako toki erakundeek eta haien menpeko erakundeek antolatutako ikuskizun eszenikoak eta musikalak aire zabaleko espazio publikoetan gauzatzea (Kale Kultura).

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Emanaldi horiek honako **baldintza** hauek bete beharko dituzte:

- Emanaldiak eskainiko diren lekuak egokiak izatea, seinaleztatuak eta mugatuak, indarreko legediak eskatzen dituen segurtasun neurri guztiak beteko dituztenak, bai eta programatzen diren ikuskizunetarako erantzukizun zibileko asegurua.
- Behar izanez gero, artistei aldagela moduan erabiltzeko lokalak eskura jartzea.
- Emanaldien alderdi teknikoak koordinatuko dituen pertsona arduradun bat izatea.
- Nahi adina emanaldi aurkeztu ahal izango dira, baina bat baino gehiago antolatuz gero, % 50 gutxienez euskaraz izango dira.

Laguntza hauetatik **kanpo** gelditzen dira, espresuki, programa edo jarduera hauek:

- a) Festetako egitasmoetan sartutako musika emanaldiak.
- b) Erritu izaerako edo ohiko jaietara lotutako ekitaldiak.
- c) Udalerri mailako jarduerak, beste herri batzuetan antzeztuak izateko diseinatuta ez daudenak.
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiko beste laguntza bat jasotzen duten jaialdien barnean antolatzen diren emanaldiak.
- e) Dirulaguntza izenduna dutenak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Jarduerak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barruan gauzatu behar dira, hau da, **2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean**.